

Dislexiaren inguruko saioa

Dislegi Elkartearen eskutik dislexiaren inguruko saio bat antolatuko da ikastolako guraso guztientzat, baldin eta gutxieneko kopuru bat osatzen bada.

Noiz: Maiatzak 10

Non: Udarregi ikastolako jangelan

Ordua: 16:45etik - 18:00ra

Izena emateko esteka:

https://docs.google.com/forms/d/1ZQodXJrXP8HgZuHwhfWijeo6b6_ytCFIS97EtoRDru8/vi ewform?edit_requested=true

Oharrak: Izena emateko azken eguna maiatzaren 8a da. Saioa aurrera aterako balitz, Alexia bitartez komunikatuko litzaizueke.

Bestalde, maiatzaren 10ean , eguerdian (12:30 – 12:50) eta arratsaldean (16:30 – 16:50) LH 5. eta 6. mailakoek sortutako diseinuekin, orri-markatzaileak eta katiluak salgai egongo dira.

Familia-plana

Maiatzaren 7an, igandea, ospatuko den **Andatza** egunerako familia-plan baterako gonbitarekin gatoz Zirimarako hezitzaileak.

Deialdia irekia da, hau da, herriko edozein familiak har dezake parte.

Egitaraua:

- **Goizeko 9:30ean elkartuko gara Txokoalden** (trenbide ondoko aparkalekuan). Familia giroan, Usurbilgo mendi kuttunak gordetzen dizkigun zenbait txoko eder, mitologiako zenbait pertsonaiaren eskutik ezagutzeko aukera izango dugu.
- 12:30ean argazkia aterako dugu denok Andatzako borda parean.
- Andatzako borda ingurua goiz osoa musikaz alaituta egongo da.

Bertan ikusiko zaituztegunakoan, aste ona izan!



ZIRIMARA: Informazio-bilera

Datorren ikasturteko eskola kiroleko Zirimara (LH1, 2, 3 eta 4) eta multikirola (LH5 eta 6) informazioa eman eta plangintza aurkezteko bilerak egingo dira.

- Datorren ikasturtean LH 1 eta LH 4 mailen artean egongo diren ikasleen familientzat: maiatzaren 9an 17:00etan Agerialdeko jangelan.
- Datorren ikasturtean LH5 eta LH6 mailetan egongo diren ikasleen familientzat: maiatzaren 11n 17:00etan Agerialdeko jangelan.



Zirimara: ate irekiak

Datorren ikasturtean LH 1 eta LH 4 mailen artean egongo diren ikasleei zuzenduta, Zirimarak, **ate irekiak** ekitaldia antolatuko du. Zirimara familian aukera ere probatu ahal izango da. [Informazio gehiago...](#)



Herri Urrats 2023

Gogorazten da aurtengo Herri Urrats maiatzaren 14an dela Senperen. [Informazio gehiago...](#)



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak HH3

HH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

[NEURRI HORIEK](#) ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAITU [DENOK](#) ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Udajolas

Maiatzaren 2tik 10era bitarte 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen udako Udajolas udalekuetan izena emateko epea irekita egongo da. Informazio osoa [hemen](#) topa dezakezue.



LEHEN HEZKUNTZA

Udajolas

Maiatzaren 2tik 10era bitarte 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen udako Udajolas udalekuetan izena emateko epea irekita egongo da. Informazio osoa [hemen](#) topa dezakezue.



DBH

Irteeren kobrantza

Datorren ostiralean, maiatzaren 12an, DBH 2. mailako ikasleek Erratzura egindako irteeraren 2. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kostua **95,50 €** izango da (aurreikusitakoa baino 2,5 € gehiago, autobusaren kostu igoeragatik). Bi epetan ordaintzea nahi duenak, mesedez, usurbil@ikastola.eus helbidera mezua idatzi **maiatzaren 10a** baino lehen.



DBH 4ko familiei oharra

Gogorarazten dizuegu 2023/24 ikasturterako Lanbide Heziketako aurre-matrikula epea **maiatzaren 8tik 26ra bitarte dagoela zabalik.**

